

1

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA D.B.H.1. mailako AUKERAGAIAK

✓ FRANTSESA 2. HIZKUNTZA.

ZERGATIK?

Hizkuntzak ikatea ezinbestekoa da gaur egungo Europan eta ez da atzendu behar frantsesa lehen mailako hizkuntza dela nazioarteko harremanetan. Beraz, frantsesa bigarren atzerriko hizkuntza bezala ikasteak **aukera** asko emango dizkigu:

1. Hizkuntzaren bidez, bertze kultura eta bizimoduak ezagutzea **oso aberasgarria da garapen pertsonalerako**.
2. Ohitura eta ikuspuntu arrotzak begirunez hartzeak **pertsonaren heziketa osoa** indartzen du eta aldi berean, posible egiten du norberarena baloratzea.
3. Hizkuntzak ezagutzeak bere **abantailak ditu lan munduan**. Lanpostu askotan ezinbestekoa da eta bertze zenbaitetan mailaz igotzeko edo soldata hobeak irabazteko aukera ematen du.
4. **Bidaia** egitearen gozamenen gure eskura jartzen du eta **giza harremanak** sustatzen ditu.
5. Europarrak izateari etekina ateratzen ahal diogu Europar Batasunaren prestakuntzarako programetan parte hartuz: **bekak, praktikak Frantziako enpresetan eta abar**.
6. Honek guztiak **garrantzi berezia du eskualde honetan**. Frantzia gertu egonik, frantsesa ikatea **erakargarriagoa** da, eskolan ikasitakoa kalean praktikatzeko aukerak badaudelako. Eta noski, etorkizunean **lana aurkitzeko baliagarria** suertatuko zaielako.

HELBURUAK

Bigarren atzerriko hizkuntza bat ikastearen helburu nagusia da frantsesez komunikatzen ikatea. **Gaitasun komunikatibo hori lortzeak** erran nahi du:

- **ahozko mezuak ulertzeko eta sortzeko gai izatea**. Mezuok eguneroko komunikazio egoerei loturikoak edo ikasleen interesekoak izango dira.
- **Idatzizko mezuak sortzeko eta ulertzeko gai izatea**. Ikasleak egoera ezberdinetan zuzentasun eta eraginkortasunez komunikatzeko gauza izango dira.
- **Hizkuntzari eta horren ikaskuntzari buruzko hausnarketa egitea**. Horri esker, haien komunikazio gaitasuna hobetzeko estrategiak identifikatuko dituzte.
- **Alderdi soziokulturalak aztertzea**. Kultur aniztasunaren aberastasuna azpimarratuko da, begirunea eta tolerantzia garatzeko hala nola giza harremanen garrantzia nabarmenean jartzeko

2. HIZKUNTZAREN ABANTAILAK

Helburu guzti horiek lortzeko ariketa mota ezberdinak egingo dira (testuak irakurri eta sortu, entzumenak, bideo egokituak, abestiak, jokoak, gramatika edo hiztegi ariketak, ordenagailu programak, Internet, eskemak koadernoan, dramatizazioak, ...
Baina kontuan hartu behar da **2. hizkuntzaren ikas-prozesuak abantaila batzuk** badituela:

1. Normalean, **frantseseko irakurle-laguntzaile bat izaten da**. Honek asko motibatzen ditu ikasleak eta aho-hizkuntza behar bezala lantzen ahal da.
2. Ikasleek **D.B.H.ko lau kurtsoetan eta Batxilergoko bietan matrikulatzen ahal dira**. Honek posible egiten du hizkuntza **maila on bat lortzea**.

✓ PARETAK MINTZO: DIGITALETIK HORMARA

HORMA-IRUDIAK, zergatik?

Hormetako irudien agerpena gizakiaren historiaren hastapenekin batera etorri zen. Leize-zuloetako paretetan giza- eta animalien irudiak, zeinu abstraktoak eta bestelako irudiak ikus ditzakegu. Orduko mundu-ikuskeran somatu ahal dugu lan horietan; irudikapen horiek ez dute galdu adierazkortasunik milaka urte igaro arren. Idazkera asmatu baino lehen gizakiak iruditeria eta ikonografia erabiltzeko trebezia erakutsi zuen.

Gaur egungo gizarteetan oraindik ere horma-irudien suspertzea begi-bistakoa da: komunikazio sistemen ugaritzeak ez du ezabatu hormen gainean adierazteko grina.

Testuinguru honetan kokatzen dugu 1.DBHko ikasleei eskaini nahi diogun aukeragaia: PARETAK MINTZO: DIGITALETIK HORMARA. Horma gaineko adierazpideak izan duen eta duen indar komunikatzaileaz jabetzea eta gaur egungo tresna digitalak erabili eta material ezberdin eta teknikak baliatzea aukera onak dira balio eta ideien adierazmoldeak lantzeko.

HELBURUAK

- **Ikasleri esperimentazio grafikoko eremu bat eskaintzea** zenbait tresna, teknika grafiko eta material ezberdin erabiliz.
- Historian zehar **horma-irudien inguruan eman diren adierazpide garrantzitsuak ezagutu** eta haiei buruzko hausnarketa kritiko eta plastikoa sustatzea.
- Ikaseen arteko giza-balioak, izpiritu kritikoa eta **elkartasunean eta proiektuetan oinarritutako jarduerak garatzea**.
- Horma irudiak garai ezberdinetako **gizartean balio eta aldarrikapenen islada** bezala ulertzea.
- **Gaitasun digitala** garatzea irudi editoreak (GIMP, INKSCAPE) erabiliz ikaslearen esku dagoen **CHROMEBOOK**en bidez.

✓ PENTSATZEN IKASI

Ikasgai honek du helburu problemaren ebazpenarekin eta arrazoiketarekin erlazionaturiko ezagutza-trebetasunak landu eta ikasleak bereganatzen joatea (sintesi eta analisirako gaitasuna, arrazonamendu zuzenaren arauen ezagupena, sormena, ...).

Horretarako, ikasleek trebetasun horiek eskuratzeko, bi planteamendu hauek nagusituko dira: gai ezberdinen inguruko ikerketak (informazioa bilatu, aukeratu, antolatu eta azaldu, arrazoiak eman) eta aipaturiko trebetasunak ikuspuntu ludiko batetik lantzea (logika jokoak, enigmen argitzea, ...).

Erabiliko diren baliabideak ere, askotarikoak izanen dira: Interneta, baliabide informatikoak, ipuinak, asmakizunak, jokoak (rubik kuboak, origamia, xakea), etab.

Aipaturiko ezagutza trebetasunak ohikoak ez diren ikuspegitatik lantzeak lagunduko die ikasle horiei bereganatzen eta gero erabiltzen funtsezkoak diren beste ikasgaietan (Matematika, Hizkuntzak, Zientziak, ...). Horregatik ikasketa prozesuan zailtasunak dituzten ikasleei zein beren pentsatzeko ahalmena garatu eta modu eraginkorrean erabili nahi dutenei baliagarria suertatuko litzaieke.

✓ KULTURA KLASIKOA

Kultura klasiko ikasgaiaren oinarritzko helburua zera da: ikasleek hautematea Greziako eta Erromako antzinako mundu horrek guretzat dituen kultura-erakargarritasunak.

Mundu klasikoa liluragarria da berez, bai hizkuntzengatik –guretzat, greziera eta latina hizkuntza klasikoak dira, klasikoetan klasikoenak-, bai irudi eta ideia zoragarriengatik, eta nahiz eta historian oso urrun egon, gure izaeran eta pentsamoldetan txertatuta dago bizitasun harrigarri. Antzinako greko eta erromatar haiek hainbat modutan eragin zuten arteetan eta literatura- eta filosofia-liburuetan bai eta politikan eta gizarte-bizitzan ere. Beraz, haien lanak ezagutzea gure burua, gure hizkuntzak eta gure sentitzeko moduak hobeto ezagutzeko bide bat da. Izan ere, orainaren azpian iragana dago beti, eta antzinako mundu hori, Greziako eta Erromako kulturaren oinarrituta, Europan sortutako zibilizazioaren sustraia da.

Irakasgai honetan antzinako munduan sortu ziren ohiturak, ideiak, baloreak, eta gaur egun gure kultura- eta arte- ondarea osatzen dutenak, identifikatzen ikasiko dugu. Azken finean, gure inguruan dagoen kultura hobeto ezagutzeko aukera daukagu, eta horrekin batera, hausnarketa bat egiteko ere bai, gure jatorriak zeintzuk diren ahaztu ez ditzagun.

Antzinako hizkuntzen garrantzia ere ikusiko dugu, seguruenik gure bizitzan etengabe erabiltzen ditugun zientzi-, teknika-, arte- eta literatura- hitz askoren hiztegia uler dezagun; horien esanahia ez genuke ulertuko jatorri grekoerromatarra ezagutuko ez baldin bagenu.

Antzinako erromatarrek eta grekoek zer bizimodu zuten aztertuko dugu; era horretara, gaurko bizimoduarekin alderatuko dugu, eta horrela ikasiko dugu zenbat zor diogun mundu klasiko horri, eta ez bakarrik gizarte- arloan, baizik eta beste batzuetan ere. Erromatar etxebizitzak nolakoak ziren, antzinakoek nola ematen zuten aisialdia, erromatarrek injineru handiak eta trebeak izan zirela, grekoek teoria filosofikoak, teknikoak, zientifikoak... adierazten zituztela ikasiko dugu.

Eta ez ahaztu arte klasikoa: erromatarren arkitektura-erakin izugarriak, grekoen eskulturak, erromatar etxebizitzetan zeuden mosaikoak, Ponpeiako margoak...

Ponpeia... Vesubio sumendiaren leherketa ikusiko dugu, Ponpeia hiria ia desagerrarazi egin zuena. Leherketa horri esker, gaur egun erromatarren bizimodua hobeto ezagutzen dugu, beren etxeak, beren lanak, beren arazoak... ezagunak eta gaur egungoak egiten zaizkigu.

Eta mitoak? Greziako mitologia iturri amaitezin bihurtu zen denboran zehar, eta hortik era askotako artistek atera dituzte gaiak: musikariek, eskultoreek, margolariak, arkitektoek, idazlariek, poetek... Bidaia honetan zehar, Olinpoko panteoiko jainko-jainkosa guztiak lagun izango ditugu, gure urratsak zaintzen baitituzte eta orduan, gure babeslariak izango dira...

Demokrazia nola sortu zen Grezian ikasiko dugu, nondik eta norengandik hartu dugun, zer alde daukan gaurko demokraziarekin, nola desagertu zen Grezian eta zergatik...

Hispaniako erromanizazioa nolakoak izan zen, batez ere Nafarroan (Iruña hiria, erromatarren *Pompeio*, Ponpeio buruzagi erromatarren sorrera da) ikusiko dugu.

Eta “klasiko” adjektiboak zer adierazi nahi duen aztertuko dugu, zergatik erabiltzen dugun, zeri esaten diogun. Ez dugu pentsatu behar zerbait “zaharra” edo “modan ez dagoena” denik, ez; aitzitik, zerbait imitagarria, lortu beharrekoa, gure jakinmina asetzeko ideia bat da.

Horregatik esaten da “klasikoaren moda ez dela pasatzen”...

Horietako alderdi asko gelan lantzen dira tailerren bitartez, era askotariko izan daitezkeenak: sukaldetakoak, jantzienak, jokoak, politikarenak...

Hona hemen nola egituratzen den irakasgaia D.B.H.ko 1. mailan:

- Greziako eta Erromako Geografia eta historia
- Erlijio eta mitologia klasikoa.
- Familia Grezian eta Erroman
- Mundu klasikoa eta arteak.
- Aisialdia eta Joko Olinpikoak.
- Erromanizazioa Hispanian eta Nafarroan
- Latinetik hizkuntza erromanikoetara.